


2012ko maiatzaren 18a, Museoen Nazioarteko Eguna

EAEko bost gaztetik bat museoaren batera joan da azken hilabeteetan

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %20 museoaren batera bertaratu dira azken hiru hilabeteetan.



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 gazteri egindako inkesta baten emaitza dira.

Museoetara joandako gazteen ehunekoak antzekoak dira EAEko hiru lurraldeetan (Arabian %19 bertaratu dira, Bizkaian %21 eta Gipuzkoan %20), baina ohikoagoa da hiriburuetan (%23) 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan baino (azken horietan gazteen %16 bakarrik joan dira museoaren batera azken hilabeteetan).

Sexuaren arabera, nesken %21 eta mutilen %19 joan direla aipa daiteke. Bestalde, adinaren arabera hauek dira bertaratzearen ehunekoak: 15 eta 19 urte bitartekoen artean %21, 20 eta 24 urte bitartekoen artean %16 eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean %23.

Museoetara hurbildu diren gazteen portzentajeak pixka bat igo dira azken bost urteotan; horrela 2007-2008 aldirian %18 izatetik 2012 urtean %20 izatera pasatu dira.

Bestalde, EAEko biztalaria osoan museoetara bertaratu direnen ehunekoa gazteen artekoa baino zertxobait txikiagoa da (%17, hain zuzen ere). EAEko biztanleria osorako datuok 2010-2011 aldiari dagozkio eta [Espainiako Kultura Ministerioak](#) kaleratu ditu.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

